



BARREN

TOKIKOM

# Biolinaren sokan



LANGABEZIAN DAUDENENTZAKO IKASTAROA  
LANBIDEREN DIRU-LAGUNTZAREKIN

## MERKATU-IKERKETARAKO LAGUNTZA

(Gaztelaniaz izango da ikastaroa)  
Asistencia en la investigación de mercados (Comercio y marketing)

Profesionaltasun agiria - Iraupena 430 ordu - Azaroaren 23tik ekainaren 3ra arte

### BALDINTZAK:

- N.A.N edo N.I.E izatea
- Lanbiden izena-emanda egotea
- Gazteleraz idazten eta irakurtzen jakitea
- Gutxieneko titulazioa edukitzea edo froga bat gainditzea

### OHARRA

- Debabarreneko biztaleek lehentasuna
- Iraupen luzeko langabetuek lehentasuna

Ikastetxea: MEKA Lanbide eskola - Arregitorre,2 - Elgoibar  
Harremanetarako: 943 748 019 - [prestakuntza@mek-elgoibar.net](mailto:prestakuntza@mek-elgoibar.net)

Egur itxurako  
azulejuak

Ukitu naturala,  
beroa eta materia  
dira egur itxurako  
zeramikak berezko  
dituen elementuak  
eta transmititzen  
dituen sentrazio  
bereizgarriak

Estetika estimatuko  
eta primerako  
ezaugarri  
teknikodun  
egur itxurako  
zeramika



# Antxustegi

Olaso Industrialdea, Olasope 5  
Elgoibar  
943 743 344  
[www.antxustegi.com](http://www.antxustegi.com)



ZERAMIKA  
ETA HARRIA



LURZORU  
LANINATUA



MARGOZTUTAKO  
PAPERA



BAINUGELA



BURONDEGA



ERAIKUNTZARAKO  
MATERIALAK



ANDER IZAGIRRE



## “Gure inguruan animalia eta landare ezberdin gutxi daudela pentsatuko dute ia denek”

**A**upa, Inma! Iñaki Sanz-Azkuek (DBHko irakasle eta Aranzadiko kide den laguna) egindako hausnarketa bati heldu nahi diot gaur. Bere baimenarekin, umeak, eskola, testuliburuak eta Euskal Herriko bioaniztasunaren inguruko bere hitz batzuk partekatu nahi nituzke.

Konturatu al zara gaur egungo umeek ez daukatela hemen bertako fauna eta flora espezieen inguruko ezagutza minimorik ere? Seguruenez, gure inguruan animalia eta landare ezberdin gutxi daudela pentsatuko dute ia denek, eta daudenak garrantzi gutxikoak direla gainera. Bestalde, primeran ezagutuko dituzte, jirafa, tigrea, koala, krokodiloa... bezalako animalia exotiko ikusgarriak. Badakite hemen bizi ez direla ordea.

Ume hauen eskolako testuliburuak aztertzen badituzu, huetako gehienetan naturaren inguruko azalpenetan kanpoko espe-

zieen adibideak (aurrez aipatutako espezieak esaterako) erabiltzen direla ikusiko duzu, gurean adibide nahikorik edo interesgarriarik egongo ez balitz bezala.

Bada, uste baino garrantzia handiagoa dauka hemen bertako espezieen adibideak erabiltzeak. Izan ere, hemen bertako espezieak ez aipatzeak, hauek gutxiestea eta kanpokoen aurrean garrantzia gutxi ematea ekar dezake. Eta argi dago, zerbait maitatuz gero, gehiago babestuko dela, eta zerbait maitatzeko ezagutu beharra dagoela.

Hau jakinik, Iñakiren eskolan, testu liburuetakoa adibideak alde batera utzi eta beraien herriko espezieekin adibide eta ariketa propioak asmatzeari ekin diote jada (bejondeizuela, Iñaki!). Ea liburu-egile eta irakasle gehiago ere hori egitera animatzen diren. Zer deritzozu zuk, Inma?



INMA MUGERTZA

## “Ez gara daukagunaz ohartu, kanpotik balioetsi ez den bitartean”

**K**aixo, lagun! Bete-beteen asmatu duzu, bai! Eta bat nator zurekin. Globalizazioa ere testu liburuetakora heldu da (zen), baina zoritxarrez, eta dakizunez, ez da soilik bioaniztasunaren esparrura mugatzen. Badirudi (bazi-rudien) kanpoko ikusgarriagoa, erakargarriagoa, hunkigarriagoa eta, oro har, hobea dela (zela). Hala ere, eta zorionez, gauzak aldatzen ari dira, poliki bada ere. Gure inguruak osatzen duen altxorraz ohartzen ari gara, pixkanaka. Bitxia da, hala ere, ez garela daukagunaz ohartu, kanpotik balioetsi ez den bitartean. Baina, gure paisaia ikusgarriak, gastronomia, geodibertsitatea... hortxe daude eta lehen ere bazeuden, eta baita fauna eta flora ere.

Gauza batzuetaz kontzientziatuago gaude orain, baina beste batzuetaz oraindik ez. Ander, zuk diozu “zerbait maitatuz

gero, gehiago babestuko dela, eta zerbait maitatzeko ezagutu beharra dagoela” eta nik, behin eta berriz idatzi izan dut “nekez zaindu eta babestu daiteke ezagutzen ez den zerbait” (EuskalNatura, 2013). Hitz gehiagoren beharrik?

Euskal Herria berezia da, berezko distira duen bitxia. Txiki eta eroso, baina anitza eta txundigarria. Baso atlantiarrek ziprztindutako mendiak, leize amaiezinak, basamortua, erreka maldatsuak, iturburu emaritsuak eta itsaslabar malkartsuak. Bioaniztasun harrigarria gordetzen dituzten ekosistema paregabeak.

Aldarrikatu ditzagun gure espezieak! Azkonarra, azeria, basurdea, katajineta, orkatza, trikua, sugandilak, sugeak, dortokak, txonta, kaskabeltza, mirua, Drosera... Iñakiren ekimena abiapuntu ezin hobea da espezie hauek ezagutu, maitatu eta ganoraz babestu ditzagun. Animo!

MIKEL ARTOLA

Ekonomilaria



## Erraldoia txikitzen

haratago egon daitezke, burbuila eta bidegurutze arriskutsuan.

Kostu baxuen abantaila, teoriaren arabera, enpresen lehiakortasunerako hiru estrategia nagusietako bat da, baina bideragarria ote da herrialde oso batentzat? 1.350 milioi biztanle izateak harrobi agortezina zirudien bide horretan, diru gutxigatik lan egiteko prest dagoen jendea sekula faltako ez delakoan. Lan-merkatu gordin, erabilgabeekiko gosea ez da gaurkoa; bere baitan dauzka ordea abantaila ahultzen diotenak: gizakiak

berezko duen baldintza hobeen bilaketa eta kontsumo-merkatuak ugaltzearen premia.

Ez dira gutxi, jakina, bide berriak zabaltzeko kimuak. Industria aldetik munduko gune nagusia izateak trebatze eta hobetze prozesu bikainak dakartzat, Mendebaldeko zenbait ekonomiatan erdi ahaztuak ere egon direnak. Industriak teknologia sakontasunez bereganatzea ahalbidetzen du, eta balio erantsiaren behararen garrantzia.

Han eta hemen lizentziatutako gazte oldeak arnas berria emango dio sistema zaharrari. Demografiak, demokraziak, puntu ekonomiko hontara goratuko ez zukeen sistema zurrunari. Ez da makala goldatu duten bidea, ez eta beraien lan ahalmen eta ekintzaitetasun paregabeak. Gai ote dira alabaina, elkarlanaren eta sareen ekonomiaren erronka berrietara egokitzeko?

**B**arne Produktu Gordina aintzat hartuz, Txina munduko lehen ekonomia bilakatuko dela dioten aurreikuspenak gero eta gertuago daude. Aktore ekonomiko soiletik, munduko potentziei omen dagozkien betebeharretan gogotsu dihardu: garapen militarra dela, blokeen politika dela, nazioarteko arrastoa dela; diasporak, esportazioak, Afrika bitarteko hedapena.

Hazkundera infinitoa zela uste izan dugun arren, hazkunderak berarekin darमतازan doitze prozesu bortitiz batez

*“Industriak  
teknologia  
sakontasunez  
beregantzea  
ahalbidetzen du”*



BARREN

ARGITARATZAILEA:

ELGOIBARKO IZARRA  
Eusko Jaurlaritzaren Argitaletxea

Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR - 943 744 112 - [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)  
[www.barren.eus](http://www.barren.eus)  
Publizitatea: 943 743 704 - [barren.publi@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.eus)

BARRENEk bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. BARRENEk ez du bere gain hartzen Iritzia, Zozoak Beleari eta eskutitzak ataletan adierazitako enantzikizunik. **KOORDINATZAILEA** Ainara Argoitia **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia, Irati Agirreazaldegia **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio, Leire Alberdi **MAKETATZAILEA** Zalao Arnaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIAK** Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro **KOLABORATZAILEAK** Garazi Ayesta, Nora Hadi, Ibon Serrano, Arkaitz Irureta, Nora Kortaberria, Nerea Gurrutxaga, Andoitz Agirregomezkorta, Abel Arriaga, Inma Mugertza, Ander Izagirre, Ana Alberdi, Eneko Iturbe, Javi Muñoz, Rafa Furnier, Eire Vila, Mikel Olaizola, Manu Sanchez, Unai Villena, Iosu Juaristi, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lamelas, Jose Luis Azpillaga, Julen Ansola, Eider Iriando, Edurne Izagirre, Alain Ulazia, Eneiz Ezenarro, Jesus Jimenez, Mikel Artola, Iñaki Odriozola, Ander Mujika, Ander Sorraluze. **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.860 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855

LAGUNTZAILEAK:

elgoibar  
bizitza-erakunde

Gipuzkoako Foru Aldundia

EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak  
(Hezkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako en erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)

### ► ESKURA PROZESUA

Oporrak pasa ondoren, Eskura prozesua jarri du martxan Gure Esku Dago dinamikak.

Erabakitze eskubidea gauzatzeko, bide-orría adostu beharra dago eta, orain arte bezala, adostasunak bilatzen jarraituko dugu. Eskura prozesua hausnarketa batekin abiatuko da: erabakitzera goaz, baina zer, non, noiz... galderei herritarrok eman behar diegu erantzuna; era berean, hausnarketa honetan, GEDren jarduera, antolamendua eta finantzazioaren gaineko erabakiak ere hartuko ditugu.

Eskura prozesua irekia eta partehar-tzailea da, elkarrekin lan egiteko tresna; horrela ba, GEDek mahai gainean jarri duen proposamenaren inguruan, nahi beste ekarpen egin dezakegu. Ondoren, azaroaren 21ean egingo den Ezohiko Batzar Nagusian hartuko dira erabakiak, Gure Esku Dagoren lana bideratuko dutenak.

Eskura hausnarketan parte hartzera animatu nahi zaituztegu, erabakirainoko bidea elkarrekin egiteko. Horretarako, Elgoibarko GEDek proposamenak banatu eta taldeak eratuko ditu; sarearen bidez parte hartu nahi baduzue, berriz, Gure Esku Dagoren webgunearen bidez ere egin dezakezue.

**Elgoibarko Gure Esku Dago batzordea**

### ► UDAZKEN LARANJA

Ustez garai berriak diren hauetan ere erronkaz beteriko udazkena dator eskubide zibil eta politikoen aldeko mugimenduentzat, estatuaren errepresioak gordintzen jarraitzen baitu. Mozal lege berria da horren azken adibidea, disidentzia kriminalizatze joera horretan sakonduz, baina ez bakarria.

Aste honetan bertan hasi da Askapena talde internazionalistaren aurkako epaiketa Madrilen, eta Herriko Tabernen

gaia ere adi jarraitu beharko dugu datoren hilabeteetan. Euskal Herrian ehundik gora dira ixteko agindua jaso duten elkartek eta tabernak, eta bailaran bertan Sorraluze, Deba eta Mutrikuko kasuak dauzkagu.

Bestalde, azaroaren 16an hasiko da Segurako en aurkako epaiketa ere, eta tartean da Joseba Zinkunegi herritarra. Abenduaren 1ean, berriz, Ainara Ladron eta beste gazte batzuen aurkako, eta 2007an egindako errepide mozketaren inguruko bi urte eta erdiko zigor eskaerari aurre egin beharko diotelarik. Eskualdean, Kepa Gerrikagoitia eibartarrak martxoaren 3aren harira Gasteizen egindako eserialdi bat dela eta izango du epaiketa; eta Ekineko en aurkako ere datozen hilabeteetan hasiko da, eta Aniaiz Ariznabarreta eibartarra tartean da.

Azkenik, abenduaren 13an geratuko da libre Juan Mari Mendizabal elgoibartarra, Ekin auziagatik kondena bete ostean.

Erronka hauei guzti erantzuteko beharrezkoa da elkartasunetik konpromisora salto egin, eta eskubide zibil eta politikoen defentsan jardungo duen herritar talde indartsua artikulatzea. Udazkena laranja margotzera goaz!

**Elgoibar Libre**

### ► ANTZERKIRA JOATEA NAHI GENUKE!!

"Aita, antzerkira joatea nahiko genuke!", esan didate semeek.

Oso erraza da, lehenengo Internet zabalitzen dugu txartelak erreserbatzeko, gero Kutxabaneko web orrira sartzen gara, sarrerak Kutxabanek bakarrik saltzen dituelako noski! Baina nola liteke komisio bat ordaintzea antzerkiko sarrera batzuk erostegatik?

Beno, saio egun berean erosi ditzaket leihatilan! Baina bakarrik Internet bidez denak saltzen ez baldin badira.

Herriko Antzokia Udala denez, sarrerak udaletzeko Arreta Bulegoan saltzea izango litzateke zuzenena edo beste salmenta puntu batzuetan.

Badirudi oraingoan ezin izango naitzela antzerkira joan haurrekin. Intenet daukat, gurasoei eskatu diet Kutxabaneko txartela eta komisioa ordaintzeko prest nago, baina arazo teknikoak ditut eta ezin izan dut sarrerarik atera. Ea igandean zortea daukadan leihatilan...

A zelako aurpegia jarriko didaten semeek!!

**J.G.**

### ► ARNALDO ASKATUTIK ESKER ONEZ

Arnaldo Askatu Herri Ekimenetik, eskerak luzatu nahi dizkizuegu Urriak 17 larunbatez Donostiara hurbildu edo eta babesa eman zeniguten herritar guztiei.

Iritzi eta proiektu politiko ezberdinetatik haratago, gutxieneko giza eskubideak dirrela jokoan daudenak jabetuta, Arnaldo eta Rafa Diezen askapena aldarrikatu genuen berriro ere.

Gure eskakizunek hor dirauten arren, benetan pozik eta harro gaude jasotako erantzun ugari, zabal eta anitzaz.

**Arnaldo Askatu! Politika askatu! Herri ekimena**

### ► UBITARTEN KATU UGARI GAIXORIK? ADARRIK EZ JO!

Katu zombien filmako auzoa dirudi gure auzoak zure hitzetan. Horrek behartu gaitu erantzuna ematera, gure iritzi etiketa faltsua delako. Ubitarten, beheko partean katu zuri-beltza dabil, goian, zuri-grisa, eta atzeko aldean, beltz txikia. Hirurak osasun oneko katuak; ez dago besterik. Bestalde, ez dugu inoiz katurik ikusi kaka edo txiza kale gorrian egiten. Bizilagunari buruz, berriz, tolerantzia handiagoa eskatzen dizugu. Hortaz, bizi eta utzi bakean.

**A.M.**

## Hartzekodunen konkurtoa eskatu du Kondia enpresak

Joan zen ostiralean aurkeztu zuen Kondiak Hartzekodunen Konkurtoa eskaera Donostiako Merkataritza Arloko Auzitegian. Epaileak eskaera onartzen badu, administrari bat izendatuko du, aurrerantzean enpresa kudeatzeaz arduradain. Azkeneko zortzi urteetan galerak izan ditu Kondiak, eta zorrak pilatu zaizkio. Enpresak astelehenerako deitu zituen langileak batzar batera, eta han jaso zuten beharginek hartzekodunen konkurtoa eskaeraren berri. 63 langile ditu Kondiak, eta halako egoeretan normala denez, ezinegona eta kezka nagusitu dira haiengan eta enpresaren gertuko gainerakoengan.

Persona fisiko edo juridiko bat kaudimengabe geratzean eta bere zorrei aurre egiteko gai ez denean martxan jartzen den prozedura juridikoa da hartzekodunen konkurtoa. Zorrei aurre egin ezin dieten enpresek justiziarengana jotzen dute, honek egoera bere onera eramateko eta zorrak kitatzen laguntzeko. Horixe da Kondiaren egoera gaur. Garai zailak bizi ditu Kondiak joan deneko zazpi-zortzi urtean. Lan-karga txikia izan dute, eta diru galera handiak. Egoera horretan inbertsiorik ere ezin izan dute egin, eta enpresa bideragarri egin ezinak eraman ditu zuzendaritzakoak hartzekodunen konkurtoa eskatzera.

Aitor Iturain ELAko Debabarrenerako ordezkariak onartu du enpresaren datuak txarrak izan direla azkeneko urteetan, baina aitortu du ustekabeen ere harrapatu dituela berriak, "iazko negu-udaberri aldetik" lan gehiagorekin zebiltzalako enpresan: "Hau iaz etorri balitz, inor ez litzateke harrituko hemen, baina orain, lan-karga bazegoen eta bazirudien egoera hobetzen ari zela". Prozesua hasi besterik ez dela egin esan du, eta tarte horretan ELAk bi eginkizun izango dituela: enpresa bideragarria den ala ez ikustea, eta ez balitz, enpresa erosi eta langileei eutsiko liekeen norbait topatzea.

## Egile Corporation enpresako Eduardo Junkera, 2014ko euskal enpresari onena



XXI enpresako fundatzaile eta presidente Eduardo Junkera Perez izendatu dute 2014ko Euskal Enpresari onena. Saria jasotzean, familiakoei, bazkideei eta langileei eskerrak eman zizkien eta azpimarratu zuen bera gaztea zela etxean zuten beharrik egon ezean sekula ez litzatekeela orain dagoen lekura iritsiko.

Durangarra da Eduardo Junkera eta mekanika eta fabrikazio ingeniarietza hain gogoko izanik Egile Taldea sortu zuen. Gaur egun 260 langile ditu, eta urtean 36 milioi euro fakturatzen ditu eta DMP (Desarrollos Mecánicos de Precisión) da taldeko irudi nagusia. Informazio gehiago: [www.barren.eus](http://www.barren.eus).

Empresa Vasca y Sociedad fundazioak Euskal Enpresaren Gaua ospatu du asteon Bilboko Guggenheim Museoa. Ekitaldian Mendaroko Egile Corporation

## Jolas eta kantu ikastaroa Atxutxiamaikarekin

Atxutxiamaikak jolas eta kantu ikastaroa antolatu du urriaren 31rako HH5-LH2ko ikasleen gurasoentzat. Ikastaroa 10:30etik 12:30era izango da, eta antolatzaileek zaintza zerbitzua ere eskainiko dute. Izena emateko azken eguna urriaren 27a izango da. Izena emateko bi aukera daude: Elgoibarko Izarraren bulegotik pasatzea edo [www.elgoibarkoizarra.eus](http://www.elgoibarkoizarra.eus) webgunean sartuta. Saioen prezioa 6 eurokoa da (Elgoibarko Izarrako bazkideentzat, 5 euro).

## Eñaut Izagirre, Incognita Patagonia espedizioan

Txileko Patagoniako Hoste uhartean esplorazioa, eskalada, hango glaziarren gaur egungo ezaguera eta kartografia, zein ikerketa historikoa uztartzen dituen proiektua da Incognita Patagonia. Lau lagunek hartuko dute parte espedizioan, tartean Eñaut Izagirre elgoibartarrak. Espedizioak The National Geographic Society elkarte prestigiotsuak eskaintzen duen Young Explorers Grant beka jaso du eta baita Joxe Takolo beka ere.



## Errosario kaleko zenbaki saridunak

Errosario kaleko jaien barruan egin zuten zozketako zenbaki saridunen berri eman dute. Hauek dira: 2335 (ordezkoa: 0530), 0733 (ordezkoa: 1375) eta 1401 (ordezkoa: 2336).

## Belaustegi bete egingo da, 'Haizea dator Iparraldetik' ekimeneko kantu bazkarian

Elgoibarko Izarra Euskaltzaleon Topaguneak, Elgoibarko Udalarekin eta herriko beste hainbat eragilerekin elkarlanean antolatutako 'Haizea dator Iparraldetik! ekimena' arrakastatsua izaten ari da. Urriaren 2an ekin zioten zikloari Mixel Etxekoparren kontzertuarekin, eta azaroaren 14an amaituko da, Ederlezi pastoralarekin eta gauean Gaztetxean izango den kontzertuarekin. Ekintza guztiak izan dira jendetsuak, eta biharko antolatuta dagoen kantu-bazkaria ere halakoxea izango da. Izan ere, Belaustegi jatetxeko jantoki nagusiak gainezka egingo du kantu-bazkarian, 108 lagunekin. Aire ahizpen kantak entzun ahal izango dituzte bazkariako izena emandakoek, eta horiekin batera, Eñaut Elorrieta eta Uxue Alberdi, Jon Gurrutxaga eta Iban Urizar ere kantuan izango dira.

## Larunbateko manifestazioan jasotako babesak eskertu du Arnaldo askatu plataformak



Jende asko eta askotarikoa batu zen zapatuan Donostian Arnaldo Otegi eta Rafa Diez libre uzteko eskatzeko antolatutako manifestazioan, eta Arnaldo askatu plataformatik jasotako babesak eskertu dute: "Iritzi eta proiektu politiko ezberdinetatik haratago, gutxieneko giza eskubideak direla jokoan daudenak jabetuta, Arnaldo eta Rafa Diezen askapena aldarrikatu genuen berriro ere. Gure eskakizunek hor dirauten arren, benetan pozik eta harro gaude jasotako erantzun ugari, zabal eta anitzaz".

## Sagarraren mundua ezagutzeko aukera eskainiko du Atxutxiamaiak bihar, hilak 24, Udazken Festan

Udazken Festa antolatu du bihar, urriaren 24rako, Atxutxiamaiak, Elgoibarko Izarraren aisialdi taldeak. Kalegoen plazan egingo dute festa, 11:30etik 13:30era eta han sagarraren mundua ezagutzeko aukera izango dute HH2-LH2ko haurrek. Sagarrak nola batzen diren, nola mazpiltzen diren eta azken batean sagardoa nola egiten den ikusteko aukera izango dute, besteak beste. Sagar-goza ere egingo dute eta Armuetazar baserrian egindako sagar zukuarekin txotx-a ere egingo dute.

## 'Beitxu, beitxu!' kantuaren leloaren koreografia

Aurrera doaz, poliki-poliki, azaroaren 28an Elgoibarren egingo den Euskarak 365 Egun lipdub-eko lanak. Duela egun batzuk *Beitxu, beitxu!* kanta eta kantu-bideoa aurkeztu bazuten ekimen horren antolatzaileek, oraingoan kanta horren leloaren edo errepikaren koreografia txiki bat erakutsiko digute. Josu Mujika dantzari eta koreografo elgoibartarrak prestatu du, eta hamabi segundoko iraupena du. Gaurtik aurrera Youtuben eta *barrren.eus* atarian egongo da ikusgai, eta mugikorretatik ere zabalduko da.

Koreografia "laburra eta erraza" da, eta elgoibartar guztiak animatu nahi dituzte ikastera.

## Garai bateko kantu eta jolasak Elgoibarko eskola-umeen ahotan

Don Don Kikilikon, *Dona dona kationa*, *Arriola Marriola*, *Kukurruku...* kantu-jolas ezagunak dira adinean aurrera doazenentzat, eta aldiz, ezezagunagoak gazteen artean. Elgoibarko Ahotsak proiektuari esker, baina, Elgoibar Ikastolako eta Elgoibarko Herri Eskolako ikasleenganaino iritsi dira kantu-jolasok. Ikasi eta abestu dituzte, eta baita sarean jarri ere grabazio horiek: [www.ikasgelan.ahotsak.eus/elgoibar](http://www.ikasgelan.ahotsak.eus/elgoibar). Guztira bederatzita bideo daude sarean ikusgai: sei kantu-jolas, bi jolas eta abesti bat.

Elgoibarko Udalak eta Badihardugu Euskara Elkarteak 2006an hasi zuten ahozko ondarea jasotzeko elkarlana. Orduetik lankidetzan dihardute eta lankidetzaz horren beste emaitza bat da hau. Orain arte bildutako material guztia: [www.ahotsak.eus/elgoibar](http://www.ahotsak.eus/elgoibar).

## Elgoibarko eta beste hainbat herritako kale kantari elkartu eta herria kantuan jarriko dute urriaren 31ko Kantu Egunean

**K**antuan hasiz gero, ez dago amaierarik eta kantuan jarriko dute Elgoibar urriaren 31n, zapatuan, kale kantarien taldekoek, kantura animatzen diren herritarrak eta beste hainbat herritatik gerturatuko diren zaleek.

2009an, sortu zuten taldea Juan Carlos Arrietak animatuta eta Regina Arrieta eta Koldo Lizarralderen laguntzaz, musikari eta kantu zale batzuk eta ordutik, herriko kale giroko ekitaldi eta jaiak probestuz, kantuz alaitzen dituzte kaleak. "Elgoibar herri kantu zalea da, eta ideia ona iruditu zitzaigun kale kantarien taldea sortzea. Udalari proposatu eta baiezkoa eman zigun hileroko azken zapatuetan abesteko egindako proposamenari, horrela feria bera ere bultzatzeko". Hileroko azken larunbatetan ateratzen hasi ziren, baita Gabon Zahar Ferian, Trinitateetan eta San Bartolome jaietan ere. "Hasieran ilusio handia nabari genuen. Jende asko irteten zen gurekin kalera kantura eta entsegura ere asko. Baina urteak aurrera joan ahala jendea gutxitu egin da". Hori izan da kantu eguna antolatzeko arrazoietakotzat: "Hasierako ilusioa berpiztea".

Taldekideen gogoia handia da, eta jendeak oso harrera ona egiten diela esan digute. "Bada jendea hasieratik gurekin hilero kantura ateratzen dena. Eta eskerrak eman nahi dizkiegu beraiek baitira kale kantarien ardatza". Ez da talde itxia eta nahi duen edonor joan daiteke abestera, baita entseguetara ere. "Askotan ikusten dugu jendea inguruan begira, eta kantura animatu ezinda. Guk ez diogu inori aterik ixten, nahi duena nahi duenean etor daiteke". Hileroko azken zapatuetan Merkatu plazan elkartzen dira 12:00etan.

Aspalditik zuten buruan Elgoibarko Kale Kantarietako horrelako egun bat antolatzeko ideia eta beste herrietatik ereduak hartuta antolatu dute aurtengorako.



### EGITARAUA

**11:00 - 11:30** Salda eta txorizo banatzea kantuzaleen artean, Kalegoen plazan. Kantuzaleen bazkarirako txartelak banatuko dituzte.

**11:30 - 12:00** Elgoibarko artisauen erakusketa ikusteko aukera (Erakusketa 10:30etik 14:00etara).

**12:00** Kantuzaleen elkarretaratzea, Kalegoen plazan eta Elgoibarko kaleak kantuan zeharkatu.

**15:00** kantuzaleen bazkaria Maalako parkean.

**17:00 - 19:30** kantuak eta dantzak.

laguntza berezia ere jaso dute. "Alcorta enpresa herriko hainbat talderi laguntzen ari da, eta gurekin ere akordatu da".

Kantua lagun artean politagoa dela irizita, beste herrietako kantari lagunak gonbidatu dituzte, eta besteak beste, Arrasate, Donostia, Barakaldo, Algorta, Deba, Eibar eta Elgetatik etorriko dira.

### Euskal kantuak

Euskal kantuak abestuko dituzte: Benito Lertxundi, Mikel Laboa, Xabier Lete, Txomin Artola, Urko... eta beste hainbat euskal musikagile ezagunenak, baina baita kantu herrikoiak ere. Kantuak, baina musika tresna taldea izango du lagun: bi soinu (Ana Arrizabalaga eta Ainhoa Zapata), bi txistu (Iñigo Legor-

buru eta Jon Arrieta) eta biolina (Elorri Iruña). Aurrez, ere, izan dira taldean musikari gehiago: Laura eta Amaia Vegas, Amaia Gorrotxategi eta Iraitz Solabarrieta. Baina taldekoek diote instrumentu nagusia ahotsa dela.

Ahotsak eta musikak bat eginda Elgoibar kantuz jantzi nahi dute kale kantarietako. "Gure helburu nagusia, kantuan gozaten duen oro gugana biltzea da. Beraz, badakizu, animatu Kantu Eguna!". Bazkaritarako izena eman eta dirua ingresatzeko aukera badago oraindik gaur, barixakuan (Kutxabank ES56 2095 5036 50 9114251107) Bestela egunean bertan bazkaritara joan ez arren, bazkalostean kantura gerturatu daitezke zaleak.



# 10 urtez enpresan euskara sustatzen erronka berriei indartsu heltzeko

Euskarak enpresan duen lekua gai hartuz eta hizkuntza kudeaketa sustatzeko asmoz 30+10 mintegia antolatu du hamargarren urtez Elgoibarko Makina Erremintaren Institutuak (IMH). Aurtengo saioa baliatu dute urte hauetan jasotako uzta agerian uzteko, besteak beste mahai inguru batean. Bestalde, Lanbide Heziketan eta enpresetan euskarak izan duen eragina aztertuz ekimen askotariko ordezkariak beren jardunaren berri eman dute.

- IRATI AGIRREAZALDEGI -



Urriaren 7ko saioan luze aritu ziren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzako Ikerketa eta Koordinaziorako zuzendari Jorge Jimenez, Danobatgroupeko kalitate arduradun eta euskara batzordeburu Jon Mugartegi, Kontseiluko idazkari nagusi Paul Bilbao, Lanekiko lehendakari Rikardo Lamadrid, Gaiindegiako koordinatzaile Imanol Esnaola eta IMHko Berrikuntzarako Tkgune fabrikazio sareko zuzendari Fermin Lazkano, Nerea Azurmendi kazetaria gidari zutela. Bakoitzak gaia bere alorrera bideratu zuen, eta enpresan euskarak duen lekuari tarte egingo dioguk ere.

## ENPRESETAKO EUSKARA PLANAK ETA AGIRIAK

Lanhitz programaren urteotako ibilbidea izan zuen ahotan Jorge Jimenezek. Izenak berak adierazten duen bezala, lana eta hitza, euskara eta eguneroko lana uztartu eta indartzeko ekimena da, enpresetako euskara planak eta horien kudeaketa sustatzeko helburua duena. Hamar urte ditu 30+10 mintegiak, lehenagokoa da, ordea, Lanhitz, eta Jimenezek 18 urtetako datu nagusiak jakinarazi zituen. 418 enpresak bideratu dituzte euskara planak Eusko

Jaurlaritzako diru-laguntzen bidez -26, 6 milioi euro-, eta enpresa horietan 84.000 langileri eragin die plangintzak. Orain artekoaz ez ezik, Lanhitzen ibilbidean barrena izandako berrikuntzak ere aipatu zituen Jimenezek, besteak beste hainbat arlo indartu egin direlako. "Indartu egin dira euskara zerbitzu hizkuntza eta bereziki lan hizkuntza gisa erabiltzeko proposatzen diren ekimenak, baita Bikain, euskararen kalitate ziurtagiriko helburuen lorpenera neurtzeko sistemarekiko lotura ere". Bikain ziurtagiri gehienak -%69- zerbitzuen alor pribatuko erakundeei dagozkie, %15 industria sektoreko enpresei eta %16 erakunde publikoentzat. Gaineratu zuen 2015ean elkargo profesionalentzako diru-laguntzak bideratu direla lehen aldiz, "profesional euskaldunek euskaraz gehiago lan egin dezaten" eta oso harrera ona izan duela batik bat Abokatuen Elkargo profesionalaren aldetik.

## LURGUNE EUSKALDUNETAKO BILAKAERA

Herri ikuspegiz Euskal Herriari buruzko ezagutza sortu eta eskaintzea helburu du Gaiindegiak, eta Uemaren eskariz, azken urteetako lurgune euskaldunaren bilakaera sozioekonomikoaren

inguruko datuak aztertu ditu. Horren ondorioak aipatu zituen Imanol Esnaolak. Lurgune euskalduneari industriaren presentzia indartsua zen, eta enpresen tamaina ohikoa baino handixeagoa. Baina, era berean, maila teknologikoa eta enpresen jabetza – askok kanpoko jabetza zuten – eta lurgune euskalduneari geratzen ziren herritarren formazio maila ere ohikoa baino maila apalagoan zeuden. “Gaur egun ezagutzen intentsiboak diren enpresa gehienak, Debagoienan dezente eta Debabarrenan zertxobait kenduta, hiriburuen bueltan eta industrigune jakinetan metatzen ari dira. Mugikortasuna izugarri hazi da lurgune euskalduneari, beste inon baino gehiago. Profesionalek lehen egiten ez zituzten distantziak egin behar izaten dituzte lanera joateko, eta horrek ere badakar bertako giza kapitalean nolabaiteko galera, eta zalantzak sortzen ditu etorkizunera begira. Ziur naiz zuetako batzuen mailan egongo direla eta momentu batean erakundeetan mailan ere bai”. Argi utzi zuen lurgune euskaldunetako alor sozioekonomikoa zaindu behar dela, hor dagoen euskaldun potentzial kopuru handienari eutsi eta joera berriari eusteko, bai joera teknologikoari baita hizkuntzarenari ere”.

## 10 urte asmo batzuk betetzeko adina



Urriaren 7an 30+10 Mintegia-aren 10. edizioa izan genuen IMHn. Mintegia-aren helburua da enpresetan hizkuntza kudeaketa sustatzea, eta horren bidez euskararen erabilera bultzatzea. Mintegia IMHk eta Ahize-AEKK antolatzen dugu, Elgoibarko Udala, Gipuzkoako Foru Al-

dundia eta Jaurilaritzaren laguntzarekin, eta beste hainbat eragilerekin elkarlanean: AFM, Laneki, Enpresarean, Langune, Emun, Elhuyar, Artez, Iberba eta Banaiz-bagara.

Urte hauetan 150 hizlari eta milatik gora entzule izan ditu. Mota askotako gaiak eta ikuspegiak landu dira, nagusiki eleantzasunean lan egiteko, eta hortaz, euskara ere lan-tresna bezala erabiltzeko, egun eskura ditugun baliabide, tresna, erreminta, makina, ekimen, egitasmo, praktika on eta aukera. Guztiei eskerrak eman nahi dizkiegu, eta gaiarekiko interesa izan dezaketenei gogoratu hitzaldi guztiak ikusgai daudela [www.imh.eus](http://www.imh.eus) webgunean.

IMHko Euskara batzordeak gaiari heldu zionean bere barne prozesua sendotzea zuen buruan. Batetik, bezeroak aktibatu eta euskarazko eskaerak gora eginez gero, erakun-

*Enpresan  
euskara  
sustatzen  
beranduago  
hasi zirenez,  
gorakada izan  
bada ere, gerora  
moteldu egingo  
dela uste dute  
eragileek*

### ENPRESAN MOTELDUKO DA

IMHko ordezkarari Fermin Lazkanori azken 30 urteetan enpresen kudeaketa batzorde buruetan tokatu zaio euskaltzale eta euskara bultzatzaile moduan jendea kudeatzea, ez ordea jendea barririk, baizik eta egin beharrak zein egiteko moduak ere. Lazkanok uste du, orain, industria, zerbitzu eta enpresa munduan euskararen presentzia areagotzen ari dela, baina berandu hasi zirela. Izan ere, beste alor batzuetan, askoz lehenago ekin eta orain hasi da moteltzen. “Enpresa munduan ez da asko moteltzen ari, baina moteldu egingo da”. Horretarako pertsonen gogo, jarrera eta zeregina bultzatu behar dela uste du. Lankideen artean euskararen ahozko erabilaren datuak ematerakoan, besteak beste esan du lankideekin beti euskaraz ez garela

%30etik gora inoiz egon eta gainera apaldu egin dela, eta idatziz ere antzerakoa gertatzen dela eta horren arrazoia izan daitekeela ofimatika, makinekiko hizkuntzak, pantailak... nahikoa ez euskalduntzea. Lantegi eta langileen datuak ez ezik, ikasleen ere eman zituen: Lanbide Heziketatik EAEn iritertzen diren 10etik 8 euskaraz lan egiteko gai dira, benetan nahi dutela 10etik 6k dio eta praktikak euskaraz egitera iristen direnak hiru bakarrik. Beraz, “per-

deak bere burua egokitu beharko zuelako errealitate horretara; eta, bestetik, kanpora begirako konpromiso horrek barrura begirako koherentzia areagotzea ekarriko zuelako. Denborak baiezatu digu, neurri batean behintzat, gure asmoak bete direla: langileen arteko euskararen erabilera gora egin du, eta gaztelania hutsean eman izan ditugun hainbat zerbitzuko leku esanguratsua egin diote orain euskarari.

30+10 mintegia klasiko bihurtu da euskararen erabilera sustatzearen alde egiten duten enpresa zein eragileentzat. Izenak dion bezala, 10 urteko zikloa bete du, eta orain bilakatu eta eraldatzea egokitzen zaio. Hurrengo erronka izango da enpresa industrial gehiagori mintegian eskaintza zabaltzea, dituzten aukerak baliatu dituztenak. Enpresek lehiakortasuna, produktibitatea, errentagarritasuna eta antzerako kontzeptuetan egiten dute lan; hortaz, lan egiteko ezinbestekoa den komunikazio eleanitz eta euskaldunak kontzeptu horietan dakarkien onurak eta abantailak azaltzea izango da bidea.

**EDURNE BILBAO MAIZA**

IMHKO HIZKUNTZA KOORDINATZAILEA



tsonen gogoan eta tresnerian -produktioarekiko bitartekoetan eragin beharra dago askoz ere gehiago”.

### AHOLKULARITZEN ONDORIOAK

Kontseiluaren bizitzan, lan-mundua euskalduntzeko jardueran emandako urrats nagusiez hitz egin zuen Paul Bilbaok: Bai Euskarari akordioa. Bestetik, Kontseiluak egindako hizkuntza politika berria eta hirugarrenik, beren aholkularitzak 2009tik euskara plana garatzen zuten enpresetan geldialdia zegoela ohartuta zergatia jakiteko egindako azterketa. “Aholkularitzekin ez ezik eragile sindikalei, enpresariei, kooperatibei eta erakundeei iritzia eskatu genien eta egindako txostenak datu interesgarri bat erakusten du: herritarren %81 esaten dute eskubidea dutela kontsumitzaile eta erabiltzaileek saltoki, enpresa eta administrazioaren aldetik euskaraz zein gaztelaniaz hartatuak izateko. Hori oso garrantzitsua da hizkuntza politika eragingarri bat egingo bada herri babes funtsezkoa delako”. Horren harira Kontseiluak ondorioztatu du lan mundua euskalduntzean hainbat langile eta enpresariren borondatea funtsezkoa izan dela; erakunde batzuetatik, Euskal Herria osotasunean hartuta argi dagoela politika egon dela. EAEn politikak asko oinarritu dira sustapenean eta euskara planen bilakaeran ohartu ziren euskara plana abiarazten zuten enpresen kopuruak gora egiten zuela. Kontsumitzaileen legeak aldatu zirenean gorakada izan zen, beraz, iruditu zitzaion horrelako arauak sortzeak baduela eragina euskara planen gorakadan. Aurrera joan arren, ordea, Kontseilutik diote unibertso osoa kontuan hartzen badugu emaitzak ez direla onak, oraindik hainbat eremu daudelako euskalduntzeko. Paul Bilbaok azken urte hauetan, hizkuntza aholkularitza eskaintzen duten enpresei ere aitortza egin zien metodologiari eta hizkuntza aniztasunaren kudeaketari begira. Gaineratu zuen, ez ginatekeela gaur egungo egoeran egongo hizkuntza aholkularitza eskaintzen duten enpresek sustapenean inbertsiorik egin ez balute.

### EUSKARA BATZORDEA LANTOKIAN

Danobat euskara arloan lanean hasi zela 15 urte inguru dira, eta Jon Mugartegik lankideen eskarari erantzuna emanez hasi zuten egitasmo hortaz, euskara batzordeaz, jardun zen. Euskara lan hizkuntza bihurtzea izan zen jarritako helburua eta horretan dihardu lanean. “Danobat taldean %90etik gora atzerrira saltzen duteproduktua eta horrela begiratu gero pentsa genezake: zertarako behar dugu euskara? Baina hasi ginenean %60-70 euskalduna edo elebiduna zen, gaur egun beste bide batzuei esker %80-85era heltzen gara, beraz, etxean (lantokian) euskaraz egingo dugu behintzat, nahiz eta gero ingelesez edo beste hizkuntzaren batean saldu beharko dugun”. Euskararen sustatzeko lan horretan hiru oinarri ditu Danobatek: hizkuntza irizpideak, lanpostu guztietarako hizkuntza eskakizunak eta euskararen alde lan egingo duen

euskara batzordea. Horrez gain, urte hauetan hizkuntzak enpresan tokia hartzeko egindako jarduerak ere aipatu zituen: urteroko motibazio ekintzak, lehiaketak, hizkuntza irizpideak betetzeko lanak eta baliabideak prestatzea, dokumentuak euskaratzea... “Gaur egun normaltzat jotzen da edozein dokumentu euskaraz egotea –batzuk baita euskara hutsean ere–”. Bestalde, Makina Erremintako poltsikoko hiztegi teknikoa ere kaleratu zuen Danobatek –gaur egun bere webgunean edozeinentzat eskuragarri dagoena–; “Askok aitzakia jartzen du makina erremintan hitz tekniko asko dagoela eta ez dakitela nola erabili, bada, hiztegi horrekin alferrik dira aitzakiak”. Eskuliburu teknikoa ere euskaratu zuten, normalean mekanikan erabiltzen dena eta webgunean ere euskararako konpromisoa islatuta dago. “Ordu eta lan asko eskainita, emaitzak agian nahi bezain onak ez badira ere egindako lana hor gelditzen da, eta aurrerantzean ere egin beharra dago”.

### EUSKARAZKO MATERIALA LANBIDE HEZIKETAN

Lanbide Heziketarako euskarazko materiala sortzea da lanearen zeregina 2001etik, eta Rikardo Lamadridek uste du horren eraginez euskarazko zikloen eskaintza handitu eta bideratu egin dela eta B eredu ere hortxe dagoela. Era berean, Lanbide Heziketako ikasleek lantokiko prestakuntza moduloa euskaraz egiteko ekimenak bultzatu dira. “Beste hainbeste egiteko eta lortzeko asmoa dugu Goi Mailako zikloetan ematen den proiektuko modularekin eta Dualarekin (lanean eta ikasten batera) ere, hori beste erronka bat da”. Enprekin kontaktuan jartzeko ezinbesteko zubiak izanik, oso garrantzitsua da Lamadriden ustez, Lanbide Heziketako ikastetxeetan euskara plan potenteak izatea, hitzarmenak egitea eta diru-laguntzak, horrek guztiak atzetik baitakar bere kostua. “Lanbide Heziketako ikastetxeetako euskara planak egiteak barruko egoera, klima, harremanak... beste era batera bizitzea dakar, marko euskaldunago batean. Eta horrek dakar pertsonak gero eta jarrera hobea izatea euskararekiko”.

**Nerea  
Arriola**

Mendaro, 13 urte

**Musikaria**



13 urte besterik ez ditu Nerea Arriola mendaroarrak, baina dagoeneko bide luzea egin du biolin-jotzaile moduan. Ume-umetan hasi zen, eta hirugarren urtea izan du aurten EIO Euskadiko Ikasleen Orkestran. Iaz, gainera, kontzertinoaren laguntzaile izendatu zuten, eta aurten, kontzertinoa izan da, ohorezko postua orkestran. Ikasten jarraitu nahi du, eta gozatzen, eta aitortu du gustatuko litzaiokeela noizbait biolin-jotzaile profesionala izatea.

- AINARA ARGOITIA -



#### ◆ Noiz hasi zinen biolina jotzen?

4-5 urterekin. Gurasoak biolin-irakasleak dira biak, eta ahizpak eta biok txikitatik ikusi eta entzun ditugu biolinak etxean. Etxetik datorkit zaletasuna. Oso ume ginela hasi ginen gu biok, eta hori ona da. Biolin eskola aurreratuak dituzten herrietan 3-4 urterekin hasten dira musika-tresna ikasten.

#### ◆ Biolinerako zure dohainen berri ez duen gutxi izango da Mendaron, emanaldi ugari eskaini izan dituzulako, bai bakarka zein aitarekin eta ahizparekin. Noiz eman zenuen lehen kontzertua? Hemendik kanpora ere bazabiltza?

Ameikutz Musika Eskolan Eguberrietan eta ikasurte bukaeran egin ohi ditugun emanaldiak izan dira nire lehen jendeaurrekoak. Duela bi urte, Iruñera joaten hasi nintzen eskolak hartzera, hamabostean behin lehenengo eta astero orain. Raffaella Acella biolin-jotzaile ezaguna dut irakasle han, eta oso gustura nago berarekin, biolin-jotzaile aparta izateaz gain, asko laguntzen didalako. Gainera, Irunen antolatzen dituzten audizioetan parte hartzeko aukera ematen didate.

#### ◆ Bistan da. Hirugarren urtea egin duzu EIO n ere, Euskadiko Ikasleen Orkestran. Zer moduzko esperientzia izan da?

11 urterekin sartu nintzen hor lehenengoz. EIO n sartzeko hautapropa antzeko bat egiten dute maiatza aldera, eta hiru urtez aukeratu naute orkestrarako, 15 urtera artekoen mailan. Kontserba-

Gustura aritu ezean,  
oso zaila da  
mundu honetan  
jarraitzea,  
hau luzerako  
kontua delako

torioetako ikasleak aurkezten dira hautaketa horretara, gehienak Bilbo, Donostia Gasteiz edo Irungoak, baina musika eskolako ikasle batzuek ere parte hartzen dugu. Profesional mailan ari diren ikasleak izaten dira normalean, eta aukeratuek astebeteko egonaldia egiten dute gero orkestrako gainerakoekin batera. Ikaragarri ikasten dugu aste horretan. Egutero entsegatzen dugu zortzi bat orduz, lehenengo hiru egunetan bakarka eta gero taldean, eta ondoren hiru-lau bat kontzertu ematen ditugu. Elkarbizitza horretan ere asko ikasten dugu, azken batean gure adineko orkestrako instrumentu jotzaileak batzen garelako eta denoi gustatzen zaigulako asko musika. EIO Gazten sartzera ederra da, orkestra sinfonikoan instrumentu guztiak daudelako eta haiekin batera jotzea oso berezia delako, gu normalean piano-jotzaileekin aritzen garelako bakarrik. Aurtengo egonaldian, gainera, kontzertino izendatu naute eta hori ohorezko postua da orkestran. Hiru kontzertu eman ditugu aurten guztira EIOrekin: Gasteizko kontserbatorioan, Bilboko Campos Antzokian eta Donostiako Victoria Eugenia.

♦ **Hiru urtez jarraian egin duzu bidea onenen artean. Horrek berak ere asko esango du ba!**

Bai, oso pozik nago. Musikari on asko daude Euskal Herrian eta Euskadiko Ikasleen Orkestra Gaztean haien artean egotea oso polita da.

♦ **Horretaz aparte, aurten lehiaketa batean parte hartu duzu...**

Bai, Euskadiko Musikari Gazteen IX. Lehiaketan parte hartu dut, B mailan, Haria modalitatean. Euskal Herriko kontserbatorioek antolatzen dute lehiaketa hau eta aurten Gasteizen jokatu da. Esperientzia berria izan da niretzat, eta pozik bukatu dut, bigarren saria Ex-/Equo lortu dut eta.

♦ **Zeintzuk dira aurrera begirako zure erronkak?**

Batetik, kontzerturen bat dudanean, ur-

duritasunak gainditu eta audizioetan ondo jotzea, eta bestetik, gero eta obra zailagoei heldu eta jo zitezak edala ikustea. Oso gustura ari naiz, disfrutatzen dut biolina jotzen, gaitasuna dudala esaten didate, berezkoa dudala hori, eta ikastea eta egunez egun hobetzea dira nire erronkak. Orain momentuan zoriotsua naiz erraz egiten dudalako aurrera, eta horregatik-edo, biolina jotzea gero eta dibertigarriagoa da niretzat.

♦ **Badaukazu miresten duzun norbait?**

Bai, asko. Itzhak Perlman, Hillary Hahn... hainbeste daude...

♦ **Urduritasunak gainditu diozu. Zu biolina jotzen ikusi zaituenak nekez igarriko du urduri zaudenik ba!**

Bai, baina banaiz urduria. Jendeaurrekoetarako oso urduri jartzen naiz, baina egia da behin jotzen hasita lasaitzen naitzela normalean eta nahikoa ondo kontrolatzen ditudala nerbioak. Ikustera joaten direnek esaten didate ez zaidala igartzen urduri nagoenik, baina barrutik... Dena den, ondo prestatuta bazoaz kontzertura nerbioak gaintitzea ere errazagoa da. Hor dago sekretua.

♦ **Etxean denok jotzen duzue biolina. Etxeko giro hori ere lagungarri izango da ba egunean biolinari eskaini beharreko orduak eskaintzeko, ala?**

Bai. Pieza batekin ezinean bazabiltza, etxekoek lagundu diezazukete. Giroak laguntzen du. Etxean askotan hasten gara laurok piezaren bat jotzen. Gainera, zu entsegatzen ari zarela beste bat telebista ikusten baldin badago... zaila da. Tentazioan jaustea da normalena eta telebista ikusten bukatzea.

♦ **Maiatzean esan duzu izaten direla EIOrekin hautaprobak. Nola ikusten duzu zeure burua 2016rako?**

Aurten aurretik izango da, Eguberrietan-edo. Saiatuko naiz, eta ea zorterik dudana.

♦ **EIOko gehienak hiri handietakoak direla diozu, a priori musikan trebatzeko**

**aukera handiagoa duten hirietakoak. Zu, berriz, herri txikioa zara. Desabantailan zaude?**

Hiri handikoek badituzte abantailak, bai, instrumentuarekin aurrera jarraitzea erabakiz gero han dituztelako kontserbatorioak, Musikene eta gainerakoak, eta gainera, kultur eskaintza handiagoa izanda, musikari onak entzuteko aukera handiagoa dutelako. Hala ere, gaur egun herri txiki gehienetan daude musika eskolak eta edonork dauka musikara hurbiltzeko aukera. Ni astero joaten naiz Iruñeraino. Moldatzen naiz, hala ere. Gogoia eta ilusioa baldin badituzu, herri txiki batean ere sor daiteke musikari on bat, pixkat mugituta.

♦ **Zuen aita herri musikatik ezagutzen duzu. Zuk zer duzu gustuko?**

Nik ere jotzen dut herri musika, aitzak irakatsita, baina momentuz klasikoa gehiago gustatzen zait. Klasikoa jotzea zailagoa da, teknika handia eskatzen duelako, eta zailtasuna gustatzen zait. Gero egia da klasikoan oso jende ona dagoela eta hor lekua egitea oso-oso zaila dagoela. Nik, hala ere, gozatzen jarraitu nahi dut. Gustura aritu ezean, oso zaila da mundu honetan jarraitzea, hau luzerako kontua delako. Egia da adin batetik aurrera zaila dela askoz gehiago hobetzea, baina nik oraindik badaukat zer ikasia.

♦ **Egutero hartzen duzu biolina?**

Batzuetan gehiago eta beste batzuetan gutxiago, baina bai, ordu t'erdia bat inguru ia egutero. Gauza guztietan bezala, egutero lana garrantzitsua da hemen ere. Instrumentu bat ondo jotzeak lana eskatzen du.

♦ **Orkestrako musikari on askok atzerriko bidea hartzen dute hemengo aukerak agortuta. Zuk ere kanpoan ikusten duzu zeure burua etorkizunean?**

Oraindik ez behintzat, baina nor daki. Europan, esaterako, Alemanian eskolako giroa dagoela esaten dute, baina ni ondoen hemen nago, lasai. Hori bai, gustatuko litzaidake biolin-jotzaile izatea, hortik bizitzea, baina oso-oso zaila da.

# Iluntasunean argi bila



**Betaurrekoak ditu, eta beraz, bistan da ikusmena apaldua duela, baina begiratu azkar batean, inork gutxi igarriko dio Mertxe Arregiri ikusmen urritasun horrek zenbaterainoko ezina eragiten dion eguneroko bizitzan, zenbateraino mugatzen duen bere zereginetan. Erretinosi pigmentarioa du, erretinari eragiten dion gaixotasun degeneratiboa eta genetikoa, eta horren ondorioz oso murriztua du ikus-eremua. Hain du murriztua, ezen pare-parean duena baino ez duela ikusten gaur. “Koska bat baldin badago lurtean, estrapozu egin eta hor noa ni hankaz gora”, dio. Egun osoz eskopeta baten kanonitik begira balego bezala ikusten duela azaldu du, eta laguntasuna eskatu du ikusmen urritasuna dutezentzat. “Paparrean ikusmen murriztua dut dioen txapa duenari, lagundu beti zuek”.**

- AINARA ARGOITIA -



Lagunaren besotik dator elkarrizketara, beste eskuan makulua lagun duela. “Edonon daude koskak, aldapak eta trabak gutxi ikusten dugunontzat. Koska non, haraxe joaten gara gainera gu!”, dio. Egun eguzkitsua da, eta kaleko argitasun horretatik bat-batean leku ilunagora sartzeak ere ez dio onik egiten, begiak iluntasunera ohitzeko denbora gehiago behar dutelako erretinosi pigmentarioa dutenek. Parez pare jarri eta hizketan hasi garela, baina, nekez igar dakiok ezinik Mertxeri. Emakume gogorra da, hitz jario eta grazia handikoa, baina badu, bai, lotzen duen zerik. Paparrean daraman bereizgarria erakutsi du. *Ikusmen murriztua dut*, dio. “Eta horri gehitu hezurretako arazoak. %99ko minusba-

litasuna aitortu didate, eta bai, laguntasuna behar dut, baina beste norbaiti laguntzearen aldean zaila da beti laguntza eskean ibiltzea. ‘Errukarria norbait behar duena’ esaten zuen gure amak, eta probatu gabeak ez daki hori zer den, ez. Ene! Zenbat gogoritzen naizen orain gure amak esandakoez, haren pauso berdina daramadala ikustean”, gehitu du.

Ama kontsultara eraman zuten aldi batean diagnostikatu zioten erretinosi pigmentarioa Mertxeri. Ikusmen onik sekula ez duela izan aitortu du eta betaurrekoak oso gazte zela ipini zizkiotela, baina Jauregi doktoarearen Bilboko kontsulta hartara joan artean sekula ez zuela pentsatu betaurrekoek, edo okerrean, ebakuntza batek zuzendu ezin zezaketen gaitzik izan zezakeenik. Alabak 2-3 urte zituela egin zuten lehenengo ostera Bilboko kontsulta hartara. “Pediatrik esaten zidan gure alabak betaurrekoak behar zituela, baina gure oku-

listak ez zigun halakorik agintzen, eta hirugarren baten iritzia entzuteran joan ginen Bilbora, pediatrik berak gomendatuta”. Hain hartu zituen ondo, hurrengo amarekin bueltatu zirela. “Ikusmen arazoak zituen gure amak, baina sekula ez genuen halakorik pentsatuko. ‘Zuek ez al diozue ibiltzeko ezintasuna igarri amari?’ galdetu zigun. Zerbait igartzen genion, bai, baina animoz hain zebilen makal sasoi hartan, aintzakotzat ere ez genituela hartzen haren ezinak. Familian itsurik izan ote genuen galdezka hasi zitzaigun okulista, eta bai, izan genuen: gure aitona, amaren aita. Zalantzarik gabe gure amak erretinosi pigmentarioa zeukala esan zigun”. Mertxeren ama “erdi itsututa”

hil zen. "Orduan ez zegoen gaurko aurrerapenik ere, eta ez zen gure antzera espezialistekin ibili". Konsulta hartan bertan eskatu zion Mertxek berari ere begiratzeko, ordurako igarrita zegoelako ikusmena apaltzen ari zitzaiola. "Autoan asko ibiltzen nintzen ni hara eta hona, eta konturatuta nengoen tuneletan sartzean k.o. gelditzen nintzela, ezer ikusten ez nuela". Erretinosi pigmentarioa diagnostikatu zioten berari ere, eta orduan azaldu zioten endekapenezko gaitza zela eta genetikoa. Gaur egun, erretinosi pigmentarioan aditua den Joaquin Irigoien okulistarekin dabil, eta Begisare elkarteak kide da Mertxe. Erretinatik eta kataratetatik operatuta dago, eta ikerketa genetikorako analisiak ere eginak dauzka. "Urte asko eman nituen ezjakin, baina orain badakit zer daukadan. Badakit gaixotasunak aurrera egin ahala ikusmena galtzen joango naizela eta azken muturrean itsutasuna ere gara dezakedala. Pertsona bakoitzaren araberakoa da hori, hala ere. Sintomak gaixo denetan dira berdinak, baina batzuegan modu batera garatzen dira, eta beste batzuetan, bestera. Horregatik oso garrantzitsua da erretinosia ahalik azkarren detektatzea, garapena moteldu ahal izateko".

Zer duen badaki, eta horrekin bizitzen ere ikasi du, baina aitortu du ikusmenaren urritzea onartzea ez dela beti erraza. "Ostikada handiena iazko ekainean jaso nuen, kanpimetria egitera joan nintzenean. Diagnostikatu zidatenean baino ostikada handiagoa hartu nuen. Makinan jarri eta ez nuen piperrik ikusten. Makina hura txarto egon behar zela pentsatzen nuen eta halaxe ohartarazi nion sendagileari ere, baina sorburuetatik

heldu eta halaxe esan zidan: 'Sentitzen dut, Mercedes, baina makina barik zeu zaude txarto.

## EGUNEROKO ZAILTASUNAK

Eguneroko bizimodua "gogorra" dela dio. Bere buruarengan konfiantza galdu duela, noiz estropezu egin eta muturrez aurrera joateko beldurrez bizi delako. "Eskilarek beldur handia diet. Etxera iritsi eta erosketen poltsa ere mahai gainean lagatzen dut beti, lurrean ahazten badut badakidalako zer daukadan: hagineta ederra. Bilobei ere esana diet motxila eta trasterik ez lagatzeko hankapean". Mahaian laga duen poltsari kolpe egiteko keinua egin du, baina ezin. Goikoak, behekoak eta alboetakoak ez ditu ikusten, burua hara zuzendu ezean. "Lagun artean ere mahaian jarri eta parekoak ikusten ditut nik bakarrik. Gertatu izan zait ondoan norbait dudala ikusi eta esatea: 'Ene, hemen al hago hi ere!' eta berak: 'Aizan, hain txikia ere ez naun ba!'".

Badaki jende batentzat ulertzeko zaila izan daitekeela eta ariketa egiteko eskatu die guztiei. "Hartu kono bat aldrebes eta begiratu handik. Horixe da guk ikusten duguna". Aulkian jarri edo handik tententzeko erakusten duen oreka faltagatik ez balitz edo eta esku-eskura dituen objektuak topatzeko dituen zailtasunengatik ez balitz, nekez igarriko lioke ezer inork Mertxeri, bere gaixotasunaren berri izan ezean. Horregatik, ikusmen urritasuna dutenei ulertzeko ahalegina egiteko eskatu die herritarrei, eta laguntzeko, laguntza beharrean ikusten dutenari.



Urriaren 8an, Ikusmenaren Nazioarteko Egunaren harira, aurkeztu zuten Begisare elkarteak *Ikusmen murriztua dut* bereizgarria Elgoibarren. Ikusmen urritasunen bat dutenek gainditu behar izaten dituzten zailtasunen gaineko hitzaldiaren barruan aurkeztu zuten bereizgarria. Laguntza optikoen bidez edota tratamendu farmakologiko edo kirurgikoen bidez zuzendu ezin daitekeen ikusmen gutxitzeari esaten diote ikusmen urritua izatea. 2013ko abenduan sortu zuten bereizgarri hau, eta txapa edo besoko gisa erabiltzen dute arazoak dituztenek, hain justu ere horretarako: laguntza behar dutela ohartarazteko.

**ORBE**



PERTSIANAK EGITEN DITUGU  
TOLDO MOTA GUZTIAN ADITUAK

Karabixa, 1 - Ermua  
Tel.: 943 179 860

[www.toldosypersianasorbe.com](http://www.toldosypersianasorbe.com)  
[persianasorbe@gmail.com](mailto:persianasorbe@gmail.com)

TOLDOAK ETA PERTSIANAK



**atzak**

taberna


San Roke 28, behea  
943 531 301 / 646 443 183

Bazkari eta afari bereziak ematen ditugu

## Iban Fernandez bederatzi aldiz igoko da Karakatera 12 ordu eta erdian

Iban Fernandez elgoibartarrak erronka jo dio bere buruari: bederatzi buelta egitea Azkue-San Roke eta Karakate artean 12 ordu eta erdian. Bihar, urriak 24, egingo du desafioa. 07:00etan abiatu eta 19:30ean amaitzea. Datuei erreparatuz gero, benetan erronka gogorra dela ikus genezake: Azkue-San Roke eta Karakate arte 8 km. daude, beraz, 72 kilometro egin beharko ditu guztira. Igo 5.900 metro egingo ditu, eta beste horrenbeste jaitsi.

Entrenamendurik ez zaio falta. Mendi lasterketa luzeetan zaildua da, eta iaz, sei aldiz igo zen Karakatera egun berean. Zazpi aldiz igotzea zen aurtengo asmoa, baina erronka gogortu eta bederatzira igo du kopurua.



gazkiak ateratzeko denbora. Lagun horiek korrika ez ezik zapatuan egingo duten ospakizunean ere lagunduko diote. Ingurukoak Karakatera gerturatzeko ere balioko du erronka honek, aitzaki horrekin uste baino gehiago animatu baitira.

### Denbora

50 minutu beharko ditu igoera bakoitzerako eta 25 jaisteko. Horri gehituko dizkio bazkaltzeko hartuko dituen 20 minutuak eta igoera bakoitzean aldamenean izango dituen lagunekin ar-

## Maite Maiora hirugarren kilometro bertikalen Munduko Kopan

Limone Extreme Race kilometro bertikala jokatu zuen Maite Maiorak asteburuan Italian eta hirugarren amaitu zuen sei kilometro eta 1.200 metroko igoeradun bidea. Lasterketa guztietako emaitzak batuta ere sailkapen nagusiko hirugarren tokian bukatu du Kilometro Bertikalen Munduko Kopa, Laura Orgue eta Yngvild Kaspersen atzetik.

Distantzia Ertaineko Mendi Lasterketen Munduko Kopako azken proban, berriaz, bigarren amaitu zuen 23 kilometroko ibilbidea Maiorak. Aurreko probetako puntuak batu ostean, ordea, Maiora, podiumaren atarian geratu zen.

### Erronka

Asteburuan ere badu erronkarik Maiorak: "Azpeitiatik Erlora hamar minutu azpitik ezetz!", bota die Euskadi Irratiko *Hiru Erregeen Mahaia* saiotik puntako hainbat korrikalariri. Proban izango dira Iñigo Lariz eta Ainhoa Lendinez ere.

## Mikel Hernandez soraluzearra irabazle Mendaroko apustuan

Apustu bitxia jokatu zuten Mikel Hernandez soraluzearrak eta Unai Salegi mendarorak domekan: Mendaroko udaletxetik irten eta antxitxika Lizarpeko gainera igo, kanaerdiko bi enbor moztu eta Gaintxipixara igo butanoa bizkarrean hartuta. Antxitxika Hernandez ailegatu zen lehenengo, baina aizkoran Salegik aldea atera zion. Gaintxipixara 56 minutuan iritsi zen soraluzearra eta mendarorak tontorretarako azkeneko maldan laga zuen proba, hauspoa beteta.

## 323 mendi bizikleta zale Debabarreneko BTT Martxan

Domekan egin zuten Elgoibarren Debabarreneko 7. BTT Martxa mendiko bizikleta zaleek. Mintxeta Kirolgunean hasi eta bi ibilbide izan zituzten partaideek aukeran, 23 eta 43 kilometrokoak, Karakate eta Irukurutzeta inguruetan. Guztira, 323 lagun elkartu ziren, tartean 38 elgoibartar eta bost mendaroar. Gainera, 50 boluntario baino gehiago egon ziren lanean ibilbidean barrena, eta antolatzaileen esanetan, giro polita sortu zen partaideen artean.





## Morkaikoren mendi emanaldiak areto eta gune desberdinetan egingo dituzte



**M**orkaiko Mendizale Elkarteak prest dauka Udazkeneko Mendi Emanaldien Zikloa. Pirinioetako, Alpeetako, Patagoniako eta Himalaiako abenturak ekarriko dituzte Elgoibarrera aurten.

Bada berrikuntzarik aurten zikloan: areto eta gune ezberdinetan eskainiko dituzte emanaldiak edizio "dinamikoagoa" osatzeko. Aurreko urteetan Musika Eskolako auditorioan edo Herriko Antzokian izan dira saioak. Aurten, ordea, bi gune horiei lanbroa taberna eta Kultur Etxea gehitu dizkiete. Lehen biak, esaterako, lanbroa tabernan izango dira.

Aurtengo zikloan bost emanaldi egongo dira: azaroaren 5ean Arkaitz Irueta, Joseba Elustondo eta Alberto Fernandezek *Menditerapia Chamonixen*; azaroaren 18an Unai Arrietaren *Mendizaletasuna: bizitza estilo aktibo eta osasuntsu baten oinarri*; azaroaren 19an Marimendi eta Mendikoloreren *Andrak Mendixan!*; abenduaren 3an Ibai Ricoren *Burning Kharkas: Langtangeko Himalaian esplorazioa eta eskalada 2014ko udazkenean*; eta abenduaren 17an Mikel Sarasolaren hitzaldia eta *Caminos de Agua* filmaren emanaldia.

### 375 ume arituko dira Eskola Kirolean

2015-2016 ikasturterako 375 umek eman dute izena Elgoibarko Eskola Kirolean, aurrekoan baino 25 gehiagok. Saio teknikoak jasoko dituzte astean bi aldiz, eta asteburuetan hainbat kirol jardueratan hartuko dute parte. Arduradunen esanetan helburu nagusia da kirolaren bitartez haurrak "heztea", partaidetza eta elkarren arteko errespetua sustatuz.

### C.D. Elgoibarrek logo lehiaketa antolatu du

Club Deportivo Elgoibarrek 2017an beteko ditu 100 urte, eta horren harira, logotipo lehiaketa antolatu dute. Diseinua "artistikoa, oraingoa, sinplea eta Club Deportivo Elgoibar identifikatzeko egokia" izan behar da. Ez dute argazkirik onartuko. Lanak abenduaren 31 baino lehenago aurkeztu beharko dira klubak Mintxetan duen egoitzan. Irabazleak 300 euroko saria jasoko du.

## Emaitzak

### FUTBOLA

Real Union 1 - Haundi 0  
Elgoibar 2 - Zarautz 2 (Jubenilak)  
Tolosa 1 - Elgoibar 3 (A Kadeteak)  
Elgoibar 2 - Eibartarrak 1 (B Kadeteak)  
Lagun Onak 5 - Elgoibar 2 (Oho. Inf.)  
Elgoibar 1 - Aloña Mendi 2 (Inf. Txiki)

### ARETO FUTBOLA

Ebrosala 3 - Concepto Egile 1 (Naz B)

### ESKUBALOIA

Garlan Legumbres 29 - Lauko 27 (Sen. nes.)  
SM Barakaldo 26 - Alkorta 33 (Sen. mut.)  
SM Egia 27 - Gabaz 21 (Senior mutilak)  
Bera bera 26 - Tecnifuelle 19 (Jub. nes.)  
Bera bera 14 - Pneumax 19 (Jub. mutilak)  
Ereintza 17 - Casa Astigarraga 17 (Kad. nes.)  
Bankoa 24 - Ormaiztegi 32 (Kad. mutilak)  
Deca 33 - Tolosa 25 (Kadete mutilak)  
Dariobus 24 - Zarautz 16 (Infantil nes.)  
Errotabarri 15 - Cometel 12 (Infantil nes.)  
Federopicos Ikus 7 - Pulpo Brakys 33 (Inf. nes.)  
Hotel Txarriduna 16 - Arrasate 20 (Inf. mut.)  
Murgil 21 - Eibar A 11 (Infantil mutilak)

## Agenda

### FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 24  
17:00 Haundi - Martutene  
11:00 Elgoibar - Aretxabaleta (Oho. Inf.)  
Domakia, 25  
12:00 Elgoibar - Ordizia (Oho. kadete)

### ARETO FUTBOLA (IMHko kiroldegian)

Zapatua, 24  
17:00 Concepto Egile - Sala Quinto

### ESKUBALOIA (Kiroldegian)

Zapatua, 24  
11:00 Cometel - Dario Bus (Infantil nes.)  
16:00 Berstain - Saieko (Jubenil mut.)  
17:45 Gabaz - Aritzatalde ZKE (Sen. mut.)  
19:30 Lauko - Kukullaga (Senior nes.)  
Domakia, 25  
10:00 Pneumax - San Adrian (Kad. nes.)  
11:30 Tecnifuelle - San Adrian (Jub. nes.)

### ESKOLA KIROLA Zapatua, 24

Benjaminak eskubaloian  
Mutilak  
9:30 Ikastola 3 A-Ikastola 3 B (IMH)  
9:30 Ikastola 3 C-Herri Eskola 3 (Ikastola)  
10:30 Ikastola 4 A-Herri Eskola 4 A (IMH)  
11:30 Ikastola 4 B-Herri Eskola 4 B (IMH)  
Neskak  
10:30 Herri Eskola 3-Ikastola 3 (Ikastola)  
11:30 Herri Eskola 4 A-Ikastola 4 (Ikastola)

### Alebinak saskibaloian (Herri Eskola)

9:30 Ikastola 5 A-Ikastola 6 C (Mutilak)  
9:30 Ikastola 5 A-Ikastola 6 B (Neskak)  
10:30 Ikastola 5 B-Herri Eskola 5 A (Mut.)  
10:30 Ikastola 6 A-Herri Eskola A (Nesk.)  
11:30 Ikastola 5 C-Herri Eskola 5 B (Mut.)  
11:30 Ikastola 5 B-Herri Eskola B (Nesk.)  
12:30 Ikastola 6 B-Herri Eskola 6 B (Mut.)  
12:30 Ikastola 6 A-Herri Eskola 6 A (Mut.)

**LANA.....****Eskaerak**

Umeak zein nagusiak zainduko nituzke orduka, eta garbiketa lanak egin.  
☎ 663 331 119

Nagusiak zaintzeko zein garbiketa lanak egiteko prest.  
☎ 686 077 316

Sukaldean lan egiteko eskaintzen naiz.  
☎ 632 198 561

Garbiketa lanak egiteko zein nagusiak zaintzeko prest. ☎ 943 254 087

Adinekoak edo umeak zaintzeko, plan-txa egiteko, sukaldari laguntzaile lanetarako edo portalak garbitzeko prest.  
☎ 631 562 380

Garbitasun lanak egiteko edo umeak zaintzeko prest. Esperientziaduna.  
☎ 631 834 632 (Ana Maria)

Adineko pertsonak zaintzen lan egingo nuke. Esperientzia eta erreferentziak ditut. ☎ 631 506 763

Ospitalean zaintza lanak egingo nituzke asteburuetan edo astean zehar, gauetz. ☎ 642 636 525

Nagusiak zein umeak zaintzeko prest, orduka. Gauetz ere bai.  
☎ 631 417 995

Garbiketa lanak egiteko eta nagusiak zein umeak zaintzeko prest.  
☎ 685 724 861 / 943 748 899

Garbiketa lanak zein pertsona nagusiak zaintzeko prest. ☎ 638 338 816

Gauetz, zaintza lanak egingo nituzke, etxean zein ospitalean. Gidabaimena daukat. ☎ 631 343 232

Baserriko lanak egiteko prest. Esperientzia daukat. ☎ 632 687 874

Pertsona euskalduna etxeko lanak orduka egiteko prest.  
☎ 687 1143 707

Adinekoak edo umeak zaintzeko edo garbiketan lan egiteko prest.  
☎ 632 229 972

LHko eta DBHko ikasleei eskola partikularrak emateko prest nago.  
☎ 615 768 310

Umeak zein nagusiak zaindu edo garbiketa lanak egingo nituzke.  
☎ 602 818 946

Adineko jendea zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Arratsaldez eta gauetz. Gidabaimena daukat.  
☎ 631 343 232

Nagusiak zaintzeko eskaintzen naiz, egunez zein gauetz.  
☎ 638 338 816

Portaletako garbiketak egin edo nagusiak zainduko nituzke egunez, gauetz zein orduka.  
☎ 632 771 519

Umeak zein nagusiak zaintzen ditut eta garbiketa lanak ere egiten ditut.  
☎ 943 748 899 / 685 724 861

Nagusiak zaintzeko, sukalde laguntzaile izateko edo garbiketa lanak egiteko prest.  
☎ 661 064 027

Adinekoak zaintzen edo garbiketa lanak egiten egingo nuke lan. Egun osoz nahiz orduka. ☎ 684 318 696

**Eskaintzak**

Esperientzia duen zerbitzaria behar dugu Elgoibarko taberna batean. Bidali Curriculumak [elgoibarlan@hotmail.com](mailto:elgoibarlan@hotmail.com) helbidera.

Enpresa mailako ingeles irakaslea behar dut.  
☎ 688 639 371

Pertsona bat behar dugu LH3ko 3 umeri frantses eskolak emateko.  
☎ 620 578 702

LH5 eta DBH4rako klase partikularrak emateko pertsona behar da.  
☎ 617 386 198

Artezte makineta (Rectificadora) edo CNC zentroetan esperientziadun ofizialak behar ditugu. Bidali curriculumak helbide honetara: 177 posta kutxatila. 20600 Eibar.

**ETXEBIZITZAK.....****Alokairua**

Familia batek bi logelako etxea hartuko luke alokairuan Elgoibarren. Gehienez 400 euro ordain ditzakegu.  
☎ 637 207 806

Familia batek hiru logelako etxebizitza hartuko luke alokairuan Elgoibarren.  
☎ 632 198 561

Etxe txikia hartuko nuke alokairuan Elgoibarren.  
☎ 632 175 172

Etxebizitza hartuko nuke alokairuan.  
☎ 677 259 560 / 661 064 027

**GARAJEAK.....****Alokairua**

Garaje itxi bat emango nuke alokairuan Elgoibarren, Leku-Ederren.  
☎ 688 687 820

Garaje itxia hartuko nuke Bernardo Ezenarron, Pedro Migel Urruzunon edo Maala inguruan.  
☎ 636 275 639

**OSPAKIZUNAK .....**

1985ean jaiotakoen bazkaria, azaroaren 14an, Sigma jatetxean. 12:00etan plazan elkartuko gara eta bazkaria 15:30ean izango da. Usua tabernan eman behar da izena eta 40 euroko ordainketa egin, azaroaren 1etik 10era bitartean.

Mila izenekoen bazkaria antolatuko dugu eta egun polit bat pasatzeko gonbitea da hau. Azaroaren 27an "Milagrosa" egunez 13:30ean kaperan elkartuko gara eta Txarriidun bazkalduko dugu. Etorri nahi duenak azaroaren 20a baino lehenago deitu eta izena eman. 685 777 609 Mila Juaristi edo 685 777 609 Mila Turdanca.

**BESTELAKOAK.....**

Bikientzat Candy Pear erako karroa saltgai. Prezio onean.  
☎ 606 340 632



**P. M. Urruzuno kalea, 6 behe - Elgoibar**  
☎ 943 743 140 - [rosapf@telefonica.net](mailto:rosapf@telefonica.net)

**NORFO SL**

**Lursail bat erosi behar diot 1988an kontratu pribatu bidez eskuratu zuen pertsona bati. Lursail hori ez da inoren izenean ageri Jabetza-Erregistroan. Zein pauso bete behar ditudan jakin nahi nuke.**

Ondasun higiezinak erosi nahi dituzte batzuek, baina ez dituzte eskriturak izaten saltzaileak dokumentu pribatu bidez eskuratu zuelako. Egoerak asko izan daitezke eta eman daitezken erantzunak ere askotarikoak.

Kasu honetan, agian, ez da beharrezkoa inmatrikulazio epai-espeditente batera jotzea. Saltzaileak agiri pribatu gisa daukan dokumentuaren eta lursailaren katastro-egoeraren arabera, erosketa eskritura publikoa eman genezake eta Erregistroan izena eman nabaritasun notario-akta baten bidez.

Eroslearen segurtasun juridikorako eroslea benetako jabea dela ziur jakitea ezinbestekoa da.

**AHOLKUA: Aproposa litzateke notariotza batera joatea -ahal dela lursaila dagoen lekukoa-, Akta-osagarria egitera. Azken aukera litzateke epai-espeditente bat irekitzea, beti ere benetako jabea dela baldin badakigu.**

**ROSA Mª PINTADO:** Etxaldean Administraziorako-Gradu ikasketen arduraduna Alcalá de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749

**administradores**  
Centro Vasco de Estudios y Asesoramiento de Negocios  
Tributario y Fiscal  
Lizentziatutako Abokatuak




Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARREneko bulegora, edo [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus) e-postara bidali.



Zorionak, **Danel**, urriaren 15ean 10 urte bete zenituelako. Etxeko eta bereziki Ainararen partez. Berekada handi bat.



Zorionak. Ondo pasa zure hirugarren urtebetetzean. Familia osoaren partez. Maite zaitugu, **Aner**.



**Eñautek** bi urte! Hau markial Zorionak eta muxu potolo bat etxeko guztien partetik.



Zorionak, **Naia**, 5 urte bete dituzulako! Mila muxu maite zaitugun danon partez!



Zorionak, **Naima**, familiakoen partez! Muxu handi bat zure 3. urtebetetzean! Maite zaitugu!



Zorionak, **Manex**, 4 urte bete dituzula-eta! Egun zorionsua izan dezazula, aitiitta eta amamaren partez.



Zorionak **etxeko printzipeari**. Muxu bat gurasoen, aiton-amonen eta bereziki Dunaren partez.



Zorionak, **Elia!** Igandean 4 urte neska handi! Mila muxu aitaxo eta amatxoren partez! Asko maite zaitugu!



Dagoeneko 15 urte handi! Zorionak, **Ainhitze**, familiako guztien partez!



Zorionak, **Trini**, hilaren 18an 91 urte bete zenituelako. Lagunen partez.



Zorionak, **Ayelen**, 8 urte beteko dituzu-eta zapatuan! Aitiitta, amama eta osabaren partez.



Zorionak, **Gorka**, zapatuan urtebetetzea. Lau tirakada belarritik eta muxu bat familiakoen eta bereziki Malenen partez.



Zorionak, **bikote!** Ez zaittezte aldatu sekula! Asko maitxe zaituztegu!



Zorionak, **Nerea eta Gorka**. Muxu handi bana etxeko eta familiakoen partez.



Urriaren 14an lehenengo urtetxo. Zorionak, **Nora**, eta segi gaur arte bezain alai eta zintzo. Elgoibarko aitiitta eta amamak.



Zorionak **gure etxeko mutil handixari!** Dagoeneko 6 urte! Muxu haundi bat!



1951n jaiotakoen ospakizunerako deialdia. 1951n jaiotako elgoibartarrek bazkaria egingo dute azaroaren 14an, Karakate jaietxean. 13:00etan elkartuko dira San Bartolome elizako arkupeetan. Interesatuak 35 euro sartu beharko dituzte azaroaren 12rako, Laboral Kutxako kontu korrante zenbaki honetan: ES88 3035 0007 2400 7113 1580.

## Lagunduko al diguzu ELGOIBARKO IZARRAREN TONBOLA OSATZEN?

Aurreko bi urteetan TONBOLAK izan duen estimazioak bultzatuta, aurten ere abenduaren 24an Elgoibarko Izarraren tonbola jarriko dugu Kalegoen plazan. Ehunka erregalu banatzea da gure desioa, baina horretarako zure laguntza behar dugu.

**Animatuko zara tonbolarako erregalua ematera?**

Animatzen bazara, esan, ahal duzun azkarren, tonbolarako erregalua emateko prest zaudela. Azaroaren 25a izango da

Harremanetarako: [elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.eus](mailto:elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.eus) / 943 741 626

**Eskerrik asko!**



## 23 BARIKAKUA

**20:30** Antzerkia: *Windermere club*. Aktoreak: Teresa Hurtado de Ory, Natalia Millan, Javier Martin, Harlys Becerra, Susana Abaitua eta Emilio Buale. Herriko Antzokian.

## 25 DOMEKIA

**16:30** Antzerkia: Txanogorritxo. Glu Glu Produkzioak. Sarrerak aurrez salgai. [www.kutxa.net](http://www.kutxa.net) webgunean. Umeak: 3,5 euro. Helduak: 5 euro. Aurrez saldu gabeak lehiatilan.

## 27 MARTITZENA

**18:00-20:00** Literatura tailerra. *Plegarias atendidas*. Truman Capote. Consuelo Carrere. Gotzon Garate Udal Liburutegian. Antolatzailea: Haizea.

**16:00** Historia ikastaroa: Sallobente-Ermuaran bidea ezagutzen Pello Arrietarekin. Maalan. Antolatzailea: Haizea. Euskaraz.

## 30 BARIKAKUA

**17:30** Kiribil. Maalako parkean. Antolatzailea: Elgoibarko Izarra. 2 eta 6 urte bitarteko haurrentzat.bat..

**21:30** Zine foruma: Violeta subió a los cielos. Kultur Etxeko hitzaldi gelan. Antolatzailea: Haizea. Koordinatzailea: Lore Salagi.

### ORDU ALDAKETA, DOMEKAN

Asteburu honetan neguko ordutegian sartuko gara, eta ordua aldatu beharko da. Hortaz, domekan, **03:00etan, ordubetez atzeratu beharko** da ordularia.



## Zinea (Herriko Antzokian)



### 'Amama'

24 Zapatua, 19:00/  
22:15

(euskaraz, azpigituluak gaztelaniaz)  
25 Domeka, 19:00  
26 Astelehena, 21:30

**Zuz.: Asier Altuna. Euskal Herria, 2015. 103 min. Drama. Aktoreak: Iraia Elias, Amparo Badiola, Ander Lipus, Manu**

**Uranga, Kandido Uranga, Klara Badiola.** Tomas eta Isabelen seme-alabek mundu zahar eta berriaren arteko gatazka bizi dute; nola ihes egin baserriari jakintzaren katea eten gabe eta arbasoei traizio egin gabe. Amaiak bidean aurrera egiteko arbasoen herentziarekin bizitzeko modua topatu beharko du.



### 'Amy'

29 eguna, 21:30

**Zuz.: Asif Kapadia. AEB, 2015. 127 min. Dokumentala. Aktoreak: Amy Winehouse, Mark Ronson, Tony Bennett,**

**Peter Doherty, Yasiin Bey, Lauren Gilbert.** Amy Winehousek musikariak bere esparruan bizitako harremanak, komunikabideekin izandako borrokak eta musika eraginak azalduko ditu dokumentalean, argitaragabeko grabazioekin eta aurrez bistaratu gabeko artxiboko materialarekin.

## Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

G  
U  
A  
R  
D  
I  
A  
K

**09:00 - 22:00**

23 Barixakua FERNANDEZ  
24 Zapatua YUDEGO  
25 Domeka YUDEGO  
26 Astelehena ORUESAGASTI  
27 Martitzena BARRENETXEA  
28 Eguaztena IBAÑEZ  
29 Eguena GARITAONANDIA  
30 Barixakua ETXEBERRIA

**22:00 - 24:00**

Astelehenetik igandera  
GARITAONANDIA

**24:00 - 09:00**

ELORZA (Eibar)  
Juan Gisasola, 18  
943 206 100

\* Fernandez: Herriko enparantza 4,  
Garagartza (Mendaro)

Tel.: 943 756 142

\* Ibañez: Rekalde, 1 (Soraluze)

Tel.: 943 751 638

\* Oruesagasti: Kalebarren, 9  
(Soraluze) Tel.: 943 751 384



V. URTEURRENA

## Miguel Moreno Vicente

2010eko urriaren 24an hil zen, 78 urte zituela.  
Haren oroimenez V. urteurreneko meza izango da, domekan, urriak 25,  
eguerdiko 12:00etan Mendaroko Azpilgoetako elizan.  
Joango zaretenoi aldezturik eskerrak.




II. URTEURRENA

## Manuel Aranbarri Elduaien

2013ko urriaren 22an hil zen, 79 urte zituela. Haren oroimenez  
II. urteurreneko meza izango da, zapatuan, urriak 24,  
arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko San Bartolome Deunaren  
eliz-parrokian. Joango zaretenoi aldezturik eskerrak.

**Ezin ikusi,  
baina bai senti,  
joan zinen arren,  
gure bihotzean  
beti zaude  
bizirik.**



## Carmen Arizmendiarieta Astigarraga

2015eko urriaren 15ean hil zen, 95 urte zituela.  
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,  
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

**Zure oroimena beti izango da  
gure bihotzetan.**





Eire Vila

## Mikel Olaizola



Ez euskara, ez Etxekoparren xirulak, ez hutsaren kosmobisio oteziarra. Badira Ekaingo trogloditekin, lur hauetako lehen kideekin estuago lotzen gaituztenak. Adibidez, keinu primitibo hori, ipurtzuloan azkura igarri eta behatza lardaskan ibili ondoren sudurrera usaintzera eramatekoa. Zeharo humanoa, aizu. *Egin, eta esaten ez ditugunak.*

Prozesu traumatikoa da gizakitzea, jendarteko araupean bizitzen ikastea ia tximu ginenok. Inausiz, moztuz, kamustuz iristen gara aurpegi gutxi asko atsegin batetara. Loreak zauria irekita behar omen du bizirauteko; aitzitik, zauria mina da, eta minaren beldur gara gu. Horregatik zauri bakoitzaren gainean geruza berri bat, eta irribartxo bat, inork ezer igarri ez dezan, orbanik nabari ez dadin azalean.

Denok dauzkagu ordea lurperatutako sekretuak. Etxe orenen azpian bada soto bat beherantz, ilunperantz: zimenduak bistartzen diren lekua, inguruak ekarri eta denborak ezarritako oinarriak agertzen direna, ahaztu nahi ditugun trastez, paperez, oroitzapenez goraino betea. Hautsez, eta orenen gainetik, hutsez gainezka geu garen zulo hori.

Bihurtu liteke baina putz edo bihurtu liteke arte hutsa. Zulo bat behar du musikak ere: ezerez bat non hedatuko soinua, non bihurtuko egonezin hori edertasun, zalantzak eta ziurtasunak mugimenduan, dantzan jartzearaino.

Musikarik gabe bizitza akats bat litzatekeela zioen Nietzschek, gero zaldi baten minari besarkatuta erotu zen hark. Ez nuke nik ere neure minei helduta galdu nahi: bihar hautsa kenduko diot berriro biolin zaharrari...

*Esan, eta egiten ez ditugunak?*

**“Loreak zauria irekita behar omen du bizirauteko”**



**ESTOPAERI**

**PILATES ZENTRUA**

San Roke kalea 30, 7 behea

## URTEKO JARDUERAK

- Pilates
- Hipopresiboak
- Aero
- Ekialdeko dantza (hilabetean ostiral batez)

## ASTEBURUETAKO JARDUERA BEREZIAK

- Urriak 24: Ariketa hipopresiboak lantzeko tailerra 10:00etatik 13:00etara
- Urriak 30: Ateak irekitzeko eguna. Ekialdeko dantzak. 19:00etatik 20:30era (Fatima Hacine-Bacha rekin)
- Azaroak 7: Masaje thailandiarren tailerra. 9:00etatik 14:00etara
- Azaroak 7: Aero-Yoga tailerra (Nani Molerorekin)
- Azaroak 28: Aero-Yoga tailerra. maila guztientzat (Anyu Yogarekin)
- Urtarrilean, ikastaro bereziak pilates irakasten duten monitoreentzat: lesioen tratamendua, elementu osagarrien erabilera...

Izena emateko: 635 199 151 Natalia

# SAGARRAREN MUNDUA

(Udazken Festa)

Urriaren 24an, zapatuan

11:30-13:30 bitartean, Kalegoen plazan  
HH2-LH2ko umeentzat

🌟 Zatoz sagardoa nola egiten den ikustera...

- Sagarrak batul
- Sagarra jol
- Tolarea eta kupela ikusil

🌟 Sagar-gozoa egingo dugu!

🌟 Txotx-a Armuetazar baserrian egindako sagar zukuarekin!

🌟 Eskulanak, jolasak, dantzak...



elgoibar



Gipuzkoako Foru Aldundia





# ORAIN GIPUZKOA

Egiteko ordua da, Gipuzkoa aktibatzeko ordua, geuri eta gainerakoel zertarako gai garen erakusteko ordua.

Betidanik egin izan dugu. Historian zehar gauza handiak egin izan ditugu sinetsi eta batu garenean. Berriz egiteko ordua da. Liderrak gara industrian, enpresa-eredu aitzindariak asmatu ditugu. I+G+Bn liderrak gara... gipuzkoarrak gara.

Aberastasunak sortzen badakigu, baina baita banatzen ere. Gure lurraz harro, baina Europara eta mundura zabalik. Tinkotasunean sinesten dugu, baina inoiz ez inposaketan. Esfortzua dugu lelo, baina baita elkartasuna ere. Estatu mailan liderrak gara ongizatean, ekonomian, gizarte justizian eta berdintasunean. Gipuzkoa gara.

Eta ez dugu zarata handirik egiten. Apaitasunez, lan eginez, arduraz aritzea eta errespetuz jokatzeko. Kexak eta altxakiak alde batera utzi behar ditugu. Frustrazioa iraganean geratu da. Zurkeriak iragana dira. Geldirik egotea iraganeko kontua da. Ezin dugu jarraitu arazoel bueltara. Hari guztia atzoko gauza da.

Orainari buruz hitz egiteko unea da. Etorbizuna orain da eta etorkizuna eraikitzeko erabakiak orain hartu behar ditugu. Gure lurra zaintzea orain da. Elkartasuna orain da. Lan egitea, laguntzea, elkarbizitzari ekitea, adostasuna orain dira.

Orain da Gipuzkoa.  
Eta orain gaur da.